

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

66/2025 Foru Agindua, otsailaren 14koa. Karrerako funtzionarioak izendatzea, administrazio orokorreko eskalako administrarien azpieskalan (C taldea, C1 azpitaldea) karrerako funtzionario gisa sartzeko deialdian, zeina Arabako Foru Aldundiko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespeneko prozesuari baitagokio (2022ko EPEa)

Abenduaren 7ko 572/2022 Foru aginduaren bidez, onespena eman zitzaizen Arabako Foru Aldundiaren administrazio orokorrean karrerako funtzionario gisa sartzeko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko 2022ko enplegu publikoaren eskaintzari dagokion salbuespeneko prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrei.

Azaroaren 29ko 614/2024 eta abenduaren 3ko 629/2024 Foru Aginduaren bidez, karrerako funtzionarioak izendatu ziren, administrazio orokorreko eskalako administrarien azpieskalan (C taldea, C1 azpitaldea) sartzeko deialdian, zeina Arabako Foru Aldundiko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespeneko prozesuari baitagokio (2022ko EPEa).

Azaroaren 8ko 519/2024 eta abenduaren 2ko 622/2024, Foru Aginduen bidez, karrerako funtzionario izendatutako pertsonetako borondatezko eszedentzia deklaritzen da.

Arabako Foru Aldundiko administrazio orokorreko karrerako funtzionario izateko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespeneko prozesua arautzen duten 2022ko lan-eskaintzako oinarri orokorretan (8.2. C) aurreikusitakoaren arabera, epaimahai kalifikatzaileak proposamen gehigarria egin du prozesua gainditu duen izangaia izendatzeko. Beraz, karrerako funtzionario izendatu behar da eskala honetan: administrazio orokorreko eskalako administrarien azpieskalan (C taldea, C1 azpitaldea).

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta ekainaren 1eko Foru Gobernu Kontseiluaren 23/2021 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi ziren. Horrez gain, Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu zituen 2023-2027 legegintzaldirako. Horrela, bada, dekretu horietan guztietan xedatutakoarekin bat etorriz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Karrerako funtzionario izendatzea, administrazio orokorreko eskalako administrarien azpieskalan (C taldea, C1 azpitaldea) sartzeko deialdian, zeina Arabako Foru Aldundiko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespeneko prozesuari baitagokio (2022ko EPEa), hura gainditu duen izangaia, ondoren adierazten den lanpostuari atxikita:

IZENA	LANPOSTUA	KODEA
SAIOA AGUIRRE AGUILLO	Eskualdeko nekazaritza bulegoko administrari arduraduna	1310.004

Bigarrena. Izendatutako pertsonak 2025ko otsailaren 24an jabetu beharko du esleitutako lanpostuaz.

Ezarritako egunean lanpostua jabetzan hartzen ez badu, salbu eta ezinbesteko kasuetan, galdu egingo ditu deialdiaren ondoriozko eskubideak Arabako Foru Aldundiko funtzionario izaera eskuratzeko.

Hirugarrena. Sartu berri den funtzionarioa adjudikatutako lanpostuari atxikitzeak behin betiko izaera izango du, eta lanpostuak hornitzeko sistemaren bidez lortutakoa izango da ondorio guztietarako.

Laugarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua hilabeteko epean, ebazpena hartu duen organo berean. Hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1. artikuluan –urriaren 1eko 39/2015 Legearen, herri administrazioen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. artikularekin lotuta– xedatutakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 14a

*Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza,
Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR